



■ EUSKAL KARABANA

Eskoletan azken egunak, bilketak

Martxan jarraitzen du janari bilketak, Sahararen aldeko Euskal Karabanak antolatuta. Eskoletan, bihar arte dago emateko aukera; eta Biterin, urtarrilean ere egongo dira kaxak. ||

■ GOIZUETA

'Zera... Nola esango dizut, bada?' saioa, bertan behera

Bihar eskaintzekoak ziren Goizuetan, *Zera... Nola esango dizut, bada?* antzezlan. Baina bertan behera geratu da azkenean. ||

■ UDAL LIBURUTEGIA

Bi eguneko komiki tailerra, urtarrilean

Komikigintza tailerra antolatu du Udal Liburutegiak, urtarrilaren 4 eta 5erako. 11:00etatik 12:30etara izango da, eta Ainara Azpiazu *Axpik* emango du, 10-14 urtekoentzat. Doan izango da, baina izena eman behar da, Udal Liburutegian. Bestalde, argazkiekin osatuta, Gabonetako zuhaitza jarri dute bertan, eta lehiaketa bat ere bai, horri buruz. Urtarrilaren 3ra arte hartu daiteke parte, eta 4an, lau sari zozketatuko dituzte: 40 euroko bono bana, Balantxa, Gaueko, Elkar eta Leokadistin erabiltzeko. ||

■ BITERI

Pintxo ikastaroan, izenematea

Urtarrilaren 10etik martxoaren 14ra pintxo ikastaroa izango da Biterin, asteazkenetan (19:00-21:00), eta ostirala da izena emateko azken eguna. Hernaniarrek 61,20 euro ordaindu beharko dituzte, eta kanpokoek, 77,52 euro. ||

■ GOIZ ARGI

15 urte ospatzeko, festa larunbatean

Goiz Argi tabernaren 15garren urteurrena ospatzeko, festa egingo dute tabernan, larunbatean 19:00etatik 04:00etara: Abereh bakarlarria, Gorpuzkingz, pikoteoa, opariak, musika... ||

■ SANTO TOMAS EGUNA

Azokak gaur herrian, eskoletan eta Donostian

Santo Tomas eguna ospatuko dute Inmakulada, Langile, Elizatxo eta Txirrita eskoletan, eta Goiz Eguzkin. Donostian jarriko du postua San Joan Konpartsak. Portu auzoan, etzi ospatuko dute.

HERRI osoan zehar zabalduko dira txistor jateak gaur, Santo Tomas egunez. Goiz Eguzki jubilatuen egoitzak, esaterako, goizeko 11:00etan hasiko du ospakizuna. Udazkeneko karta eta herri-jolasen sariak banatuko dituzte aurrea; ondoren, lau saski zozketatuko dituzte, bazkideen artean; eta segidan egingo dute txistorrada.

Herriko eskoletan ere, gaur bertan egingo dute festa. Inmakuladan, azoka jarriko dute 10:30etatik 12:00etara, barazki, fruta, pastel eta abarrekin. Ez da faltako txistorrarik, noski! Eta txerrixoaren eta saskiaren zozketarekin bukatuko dute.

Elizatxon ere jarriko dute azoka, 09:00etan. Altxorraren jolasa ere egingo dute, Olentzoreroren bisita jaso, eta txistorra bokadilloak jan.

Olentzero eta Mari Domingiren bisita jasoko dute Langile ikastolakoek ere, Meaben; eta 12:00etan kalejira egingo dute. LH1ekoak, berriz, Elutxetara joango dira Olentzero eta



Jendetza elkartu zen Zikuñagan, joan den asteburuan, Santo Tomaseko txistorradarekin.

Mari Domingiren bila, eta LH2koek egingo diete harrera Laubidietan. Txistorrada egingo dute gero, eguerdian.

Eta Ereñotzuko Txirrita eskolan ere ospatuko dute, goizean, auzotar guztiei bertaratzeko gonbitea luzatuta.

Gaztelekuak, aldiz, arratsaldean ospatuko du Santo Tomas eguna, 17:30etatik aurrera lokalean, *Txistorra&Halal* meriendarekin.

Eta San Joan Konpartsa Donostian egongo da gaur, Gipuzkoa Plazan taloak saltzen, joan

den larunbatean Plaza Berrin azoka jarri ondoren.

Portu auzoan, larunbatean Santo Tomas eguna datorren asteburuan ospatuko duenik ere izango da: Portu auzoan, larunbatean 12:00etan. ||

■ UDALA ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZAK

Alokairurako dirulaguntza deialdia, zabalik

164.000 euroko partida gorde du Hernaniko Udalak, gazteen artean alokairua sustatzeko asmoz. Hogei egun naturaleko epea dago, eskaerak udaletxean aurkezteko, atzotik hasita.

HIRUGARREN urtez, dirulaguntza deialdia zabaldu du Hernaniko Udalak, gazteen artean etxebizitzaren alokairua sustatzeko. Guztira, 164.000 euroko partida gorde du horretarako: 82.000 euro 18-35 urtekoentzat,

eta beste 82.000 euro 36 urtetik gorakoentzat.

Asteartean argitaratu zen deialdia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; eta atzotik hasita, 20 egun naturaleko epea dago eskaerak aurkezteko, udaletxe-

ko Herritarren Harrera Zerbitzuan (astelehenetik ostiralera goizez), edo Erregistro Zerbitzuan (arratsaldez). Horretarako, Hernanin duela urtebetetik hona egon beharko dute errol-datuta. Eskaera orriak HHZn

bertan, eta www.hernani.eus web orrian daude.

Deialdi honekin, diruz lagunduko dira 2017ko irailaren 1etik, 2018ko abuztuaren 31ra bitarteko alokairu gastuak; gehienez, hilean 650 euro. ||

BAIKI
JANTZIAK
Zure zain gaituztu
Zorionak! GABONAK DIRELA ETA opari ttiki bat erosketa bakoitzarekin!
Kale Nagusia, 9 - Hernani - Tel. 943 33 49 22

Amaita
arrandegia
Arrainak
Itsaskiak
Fresko eta izoztuak
943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

kronikalari
BAT
€uro
BAT
AZAROAREN 18TIK ABENDUAREN 27RA

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALTAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / Gaeuz: Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) 943 552087

EGURALDIA
GAUR Goizean eguzkia izango da nagusi, baina hotza egingo du, tenperatura pixka bat igo arren. Arratsaldean, beriz, lainotuz joango da pixkanaka, iparraldeko haizearekin batera. **Min.4° / Max.11°**
BIHAR Zerua lainotuta egongo da goizetik, baina ateri etsiko dio arratsaldera arte. Gero, iparraldeko haizea indartu, eta euria egingo du, egunaren bukaerara partean. **Min.6° / Max.10°**
(euskaime)

UDALA EZ OHIKO PLENOA

%6ko igoera, 2018ko aurrekontuetan

EAJk eta PSEk kontra bozkatu zuten, eta OH abstenitu egin zen. Beterri-Buruntzako araudia eta Eziagoko azterketa aho batez onartu ziren.

DATORREN urterako aurrekontuak onartu zituzten behin behinean astearteko ez ohiko Plenoan, EH Bilduren aldeko botoekin, EAJ eta PSEren kontrakoekin eta OHren abstentzioarekin. GAO eta udaletxe-ko iragarki taulan argitaratu eta 15 eguneko epea izango da erreklamazioak egiteko, behin betiko onartu aurretik.

Horrez gain, aho batez onartu ziren aurreko akta, Eziagoko azterketaren behin betiko onarpena, eta Beterri-Buruntzako Elkarlan Sorguneren Programaren funtzionamendu araudia. Luis Intxauspe alkateak azaldu zuen ekin-tzaile desberdinek beren proiektuak garatzeko espazioa dagoela bertan, eta funtzionamendua arautzeko langile bat kontratatatu dela, gerora Beterri-Buruntz sortu daitezkeen guneetan aplikagarri izango litzatekeena.

33.394.094 euro, 2018ko aurrekonturako
Azkeneko utzi zuten 2018ko aurrekontuari dagokion puntua. Intxauspek azaldu zuen PSEekin eta OHekin bildu dela, haien kezka eta zalantzak argitu eta proposamenak jasotzeko, eta EAJri ere «lan-keta egitea proposatu arren,

EAJk biltzeko asmorik ez» zuela adierazi ziela. Beraz, aurrekontua onartu zuten EH Bilduren aldeko botoekin, EAJ eta PSEren kontrakoekin, osoko zuzenketak egin dituztelako, eta OHren abstentzioarekin. OHko Jaione Aristregik azaldu zuen abstenitu egiten zirela, «aurrekontuak nahiko sozialak eta jasangarriak» izan arren, «Udal Taldean konfiantza galdu» dutelako; «iaz ere negoziatu genituen proposamenak, eta abendura arte ez dugu jakin zertan ziren».

Guztira, %6ko igoera onartu zen 2018ko aurrekonturako: 33.394.094,00 euro. Horietatik, 27.427.709 euro izango dira Hernaniko Udalerako; 8.104.217 euro Udaleko Zerbitzu Sozialerako; eta 377.889 euro Ereñotzuko Auzo Udalerako.

Biterin berrikuntzak, gizarte langile berria edo Fagollagako zentralaren erosketa, proposamenetan
Aurrekontuak «Gobernu Talde honen 3garrenak» direla azaldu zuen Intxauspek, eta «hiru ardatz» dituztela: «hernaniarren bizimodua hobetu, zerbitzuen kalitatea hobetu eta herriaren garapen jasangarria bermatu». Isa Sanchez Ogasun zinegotziak diru kontuen azal-

pen zehatzagoak eman zituen, eta arlo bakoitzeko zinegotziak azaldu zituen aurrekusi diren proposamenetako batzuk.

Euskara eta Kultura arloan azpimarratu ziren, besteak beste, taldeentzako dirulaguntzen igoera, Biteriko aforoa haunditu eta akustika hobetzeko obrak, eta Musika eta Dantza gune bat sortzeko ideia; Zerbitzu Sozialerako, gizarte langile bat gehiago kontratatzea; Hezkuntzan, Baso Eskola martxan jartzea; Kiroletan, obrak eskaintzen dituen baliabideak aprobetxatzea; Lankidetzan, dirulaguntzak igotzea; Berdintasun eta Gazteria arloetan, Emakume etxea, eta gazteentzako eskaintza mantentzea; Ingurugiroan, azterketak egitea lurzoruaren kutsaduraren eta aire kalitatearen inguruan, Fagollagako zentrala erostea edota enpresei gaikako hondakin bilketa zerbitzua ematea; eta Azpiegitura Informatikoei dagokienez, sare libre eta askeen alde egin eta lizentzietan aurretzea.

Aurrerago, zehaztapenak
2018ko Udal Aurrekontuen datu zehatzak eta alderdien balorazioak argitaratuko ditu Kronikak, datozen egunetako erreportaje landuagoan. ||

GARBITZAILEEN GREBA LAB SINDIKATUA

«Lortu dira langileen aldarrikapenak»

LABen iritziz, «langile borrokak bere emaitzak eman ditu». Horregatik, bertan behera geratu da atzo hastekoa zen kale garbitzaileen greba.

GIPUZKOAKO kale garbitzaileen greba deitu zuten LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek abenduaren 5eko agerraldian, baina bertan behera utzi zuten atzo, greba hasi baino ordu batzuk lehenago lortuta akordioari esker.

LAB sindikatuak azaldutakoaren arabera, «lehenik eta behin, sektoreko hitzarmena mantendu izana garaipena da». Bestalde, hiru aldarrikapen egin ziren, eta horietatik bi «lortu» dira. Batetik, «erregulazio edo prozedura bat

egotea lanaldi partziala duten langileentzat lanpostu hutsak betetzeko, izan behin behinekoak edo behin betikoak». Bestetik, «hitzarmenean honen denbora eremu mugagabea adostea».

Hirugarren aldarrikapenean eskatu zen «soldata igoe-rak KPIari (IPC) lotuta egotea, eta azkenean lortu da 2017 urterako KPIa+0,1; eta 2018 eta 2019rako KPIa+0,2».

LABek zoriondu egin du sektorea, «negoziaketan izandako jarrera aktiboagatik». ||

GOIZETIK TXISTULARI BANDA



Goizetik Txistulari Banda, Susi Elosegí gitarra-jolearekin.

Txistu hots gozoa, gitarrarekin goxatuta

Goizetik Txistulari Bandak Eguberrietako kontzertua eman zuen igandean, Milagrosan. Susi Elosegí gitarra-jolea izan zuten lagun. Ondoren, jan-edana partekatu zituzten bertaratutakoekin, giro ederrean. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† MARÍA LUISA MANRIQUE LOYARTE
(José María Amaseneren alarguna)
Atzo hil zen, 90 urte zituela
- Goian Bego -

Seme-alabak: Pilar eta Carlos Sanz, eta Marisol; bilobak: María eta Antón, Maider eta Mikel; birlobak: Ane eta Martín; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2017ko abenduaren 21ean

Helbidea: Izpizua kalea
OHARRAK: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizenak, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Baliteke!

Hernaniko PSOEak 2017ko abenduan argitaraturiko berripapertxo nire etxeko gutunontzian jaso nuen orain dela gutxi. Berripapertxo horrek izenburua *Gure Hitz*, *Hernani*, *Nuestro Compromiso* du, baina ez dirudi konpromiso hori euskararekikoa denik.

PSOEak zer dioten jakin nahirik, irakurtzen hasi nintzen eta gehienbat erdaraz idatzirik zegoela ohartu nintzen. Euskarari tarte txiki batzuk eskaini zaizkio, inortxok ere euskararekiko sentikortasunik ez dutela esaterik izan ez dezan edo, baina ia gehiena gazteleraz idatzirik zegoen. Eta euskaraz idatzitako tarte txiki horietan ere akatsak zeuden.

Beraz, berripapertxoan me-

zu gehienak gazteleraz zergatik argitaratu dituzten hausnartzen hasi nintzen eta honelako galderak bururatu zaizkit:

Hernani Espainia dela eta gaztelera hutsean egin behar dela uste ote dutelako? Baliteke!

Euskarak hernaniarren arteko elkarbizitza ez duela sustatzen iruditzen ote zaielako? Baliteke!

Denok gazteleraz badakigula eta euskararen beharrik ez dagoela uste ote dutelako? Baliteke!

Hernanin gaztelera arriskuan dagoela uste ote dutelako? Baliteke!

Euskal Herria Erdal Herria bihurtzeko gazteleraz egin behar dela uste ote dutelako? Baliteke!

Euskarak kontu txikiak aipatzeko balio duela, baina mezu garrantzitsuak gazteleraz

zabaldu behar direla uste ote dutelako? Baliteke!

Erdarak erdalun egiten gaituela uste ote dutelako? Baliteke!

Hernaniko euskal hiztunei begirunerik ez zaiela erakutsi behar uste ote dutelako? Baliteke!

Euskaltzalekasuna bost axola ote zaielako eta Hernanin mintzatu behar den hizkuntza bakarra gaztelera dela uste ote dutelako? Baliteke!

Euskarak historian zehar pairatu duen zapalkuntza berdin ote zaielako? Baliteke!

Galdera gehiegi ez ote direlakoan nago, baina agian galdera hauek guztiek erantzun bakarra merezi dute: Euskal Herrian Euskaraz!

Karlos Apeztegia Jaka

IRAGARKI MERKEAK

Tabena alokagai, erosteko aukerarekin. Karmelo labaka kalean, Hibai taberna.
Deitu: 943 21 78 56

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)